

# Laborariak tresnak elkarbanatzen dituzte, zuk zergatik ez?

| ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA |



## Elgarrekin NMEK

**Lekua:** Makea (Lapurdi).

**Bizibidea:** Laborantza.

**Inguruko laborarien antolaketa:**

Elgarrekin NMEK (Nekazaritzako Makinen Erabilerarako Kooperatibak. Frantsesezko CUMA *Coopérative d'Utilisation de Matériel Agricole*).

**Sorrera:** 1975eko abenduan sortutako NMEK-k Lekornen (Lapurdi) du lantegia.



**Gazte makearra bezala, Iparraldean dauden NMEK gehienak laborantzara edo nekazaritzara bideratuta daude, baina antolatzeko moduak eta eskemak beste arloetara bideragarriak dira, lehen sektorerara mugatu gabe.**

MAKEAKO PENTZEETAN da Antton Uhalde laborari gaztea, egunero bezala bere ardi eta behiekin lanean. Esnetarako ditu lehenak, eta haragitarako, berriz, bigarrenak. Hogeita bost urterekin, badira lau haurtzarotik etxean ezagututako bizibideari heldu ziola; aita erretretan izanik berak hartu baitzuen azientaren ardura. Elgarrekin NMEK<sup>n</sup> da sartua gaur egun, etxean irakatsi zioten bezala, eta inguruko 150 laborariak ere hautatua duten moduan. Zehazki zer da NMEK edo CUMA bat?

Laborari eta nekazariak modu kolektiboan elkarbanatzen dute lanerako beharrezko duten tresneria. Horrela, ekonomikoki asko errazten zaie laborariari lanabesak erostea, ez baitio gastuari bakarrik aurre egin behar. Zonaldeka banatzen dira kooperatibak, eta beharren araberrako materiala izaten dute. Elgarrekin NMEK<sup>n</sup> erosten den edo urtean zehar erabiliko den tresna bakoitzeko ez dute kide guztiak diru zati bat jarri behar izaten; laborari bakoitzak erabakitzen du zein material behar duen eta erabileraren

arabera antolatzen dute ordainketa. Urtean kuota bat izaten dute aukeraturako makina bakoitzeko, eta ondoren langileak erabilera-orduen arabera ordaintzen du.

### Onura ekonomiko eta soziala

Alde ekonomikotik garbi dago laborariari merkeago aterako zaiola materiala kolektiboan erostea; baina alde sozialetik ere badu bere puska. Laborariak bildu egiten dira, elkarrekin lan egiten dute, eta sare sendoak sortzen ari dira. Jabego pribatutik harago taldea osatu dute, eta taldean funtzionatzen dute.

### Antolaketarako independenteak

NMEK-k ez daude beste erakundearen baten barruan, eta bata bestearengandik independente sortzen dira. Halere, izaten dute beste NMEKekin harremana, eta zenbait material erosteko bi edo hiruren

artean ere egiten dute tratua. Elgarrekin NMEK-k 150 kide inguru ditu eta bi langile dauzkate denbora osoz, kooperatibarentzat lanean. Hauek antolatzen dituzte guztiak garai bertsuan behar izaten dituzten makinaren ordutegiak, erabilera-orduak, eskatzen diren tresna berrien hautaketa prozesuak, materialaren mantenua eta abar.

### Laborari bat, boz bat

NMEK-ko kide guztien artean hartzen dira erabakiak, eta erosketa prozesuek bere denbora behar izaten dute adostasunera heltzeko. Eztabaidak luze jo badezake ere, azken hitza du laborari bakoitzak, eta bozka bidez erabakitzen da zein material erosi. Hiruzpalau aukeren artean, bakoitzak modu irekian nahi duenari ematen dio boza, eta gehien lortzen dituen izango da aukeraturakoa. ■